

4. Bezeroekin harremanak:

Gure enpresarekin kontaktuan jartzea oso erraza da, bezeroek gauza sinpleak eskertzen dituzte, eta bakoitzak erosoago topatzen duen bidea erabiltzeko aukera du:

- Web orri bitartez
- Korreo elektronikoko bitartez
- Dei bitartez

Web orrian fitxategia bete eta gero, “bidali” botoia sakatutakoan, automatikoki iristen zaizkigu bezeroen datuak. Emailez egiterakoan gure erantzuna jasoko dute xehetasun guztiekin. Aldiz, telefonoz egiterakoan, guk geuk momentuan hartzen ditugu datuak.



Zalantzaren bat edukiz gero, fitxategia betetzerakoan, zer zerbitzu emango dugun inguruan edo beste edozer gauza, telefonoz deitzeko edo korreo bat bidaltzeko aukera dago eta ahalik eta azkarren saiaturako gara zalantza horiek argitzen.

Kontuan hartuz ez dela erraza ezezagun bati zure umearen kargu uztea, gu ezagutzeko eta instalazioak ikusteko aukera egongo da hainbat bilera eta ate-irekiak antolatuz. Ordutegia ez bada oso egokia, salbuespenak egiteko prest gaude.